

Irunberri elkarteari babesa adierazteko eguna, larunbatean

Herriko tabernak defendatzera goaz, eta defentsa horrekin bat egitera deitzen ditugu herritarrak". Zarautzen herrikoetako ordezkariak agerraldi jendetsua egin zuten ekainaren 20an, eta bertan elkar-teei babesa adierazteko deia luzatu zieten herritarrei. "Inork ez dezala pentsa ostegunean ezer amaitu zenik. Ez dugu sententzia onartzen. Herriko tabernak defendatuko ditugu, eta defentsa horrekin bat egitera deitzen ditugu euskal herritarrak". Itxura guztien arabera, ehundik gora herriko taberna konfiskatuko dituzte. Eta ondoren, Estatuak herrikoen ondare hori guztia enkantean salgai jarriko du. Zarautzeko agerraldian adierazi zutenez, epaia basakeria judizial eta politikoa da: "Espainiako Auzitegi Gorenaren epaia, 1936ko gerran egindako konfiskazioaren parekoa". Gaur gaurkoz, herriko tabernen konfiskazioa eta itxiera nola izango den jakiterik ez dago.

Aurreko ostiralean, jaien hasierarekin batera, dozenaka herritarrek bat egin zuten Goikoplazan deitu zuten elkarretaratzean. Amaieran epaiaren balorazio politikoa egin zuten, asanbladan, eta Irunberri-ri gozatzeko deia egin zuten: "Irekita dagoen bitartean Irunberri-



San Juan jaien hasieran agerraldia egin zuten Goikoplazan.

ra agertzeko deia egin nahi dugu. Eurek itxiko dute, guk ez. Eta irekita dagoen bitartean bizia emango diogu".

AUZITEGI NAZIONALAK LEHENIK, AUZITEGI GORENAK ONDOREN

35/02 sumarioaren baitan, iazko uztailaren 30ean 110 herriko taberna konfiskatzeko agindua eman zuen Espainiako Auzitegi Nazionalak. Tartean Beterri-Aiztondo eskualdeko Irunberri (Andoain) eta Iratzar (Amasa-Villabona) elkarteak. Aurtengo ekainaren 18an Auzitegi Gorenaren epaia iritsi da, eta itxura guztien arabera, Irunberri taberna eta elkarteak itxi eta estatuaren esku geratuko dira.

IRUNBERRI, EKIMEN HANDIKOA

Sukaldea eta jangela dituen bazkideentzako txokoa izateaz gain, Irunberri taberna zerbitzua eskaintzen du. Hori guztiaz gain, elkarteak gizarte eta kultur mailako erreferentzia garrantzitsua da. Azken hila-beteetan antolatu duen ekitaldi sortaren errepasoa egitea besterik ez dago. Atzekoz aurrera aipatzen hasita, Santakrutzetan herriko elkartearen arteko bakailao txapelketa urtero antolatzen du. Aurtun, berrikuntza modura, haur fanfarrea ere antolatu zuten. Urte osora luzatzen diren jarduerak antolatzen ditu. Askoren artean, inauterietan dantzaldia, otsailean pala txapelketa mixtoa,

IRUNBERRI

BABES EGUNA

Ekainak 27, larunbata

Irunberri elkartearen aldeko babes eguna, "Irunberri libre! Estatua lapurra!" lemapean.

Egitaraua:

11:00 Prentsaurreko koloretsua.

12:00 Kale animazioa.

14:30 Herri bazkaria.

16:00 Haur txokoa.

18:00 Babes katea.

18:30 Musika emanaldia.

"Irekita dagoen bitartean Irunberri-ri agertzeko deia egin nahi dugu. Eurek itxiko dute, guk ez. Eta irekita dagoen bitartean bizia emango diogu"

urte zaharreko karaokea, Irunberriren urteurreneko kultur astea abenduan, gau beltza urrian, eta baita hilabete berean euskal artisau garagardo azoka edota futbol txapelketa ere. Abuztuaren ohikoa dute sorgin gaua antolatzea.

Alde batera utzi gabe tarteka antolatzen dituzten kontzertu, hitzaldi edota ikus-entzunezkoak.

"Iruzurrak darrai", ospakizuna Andoainen



Stop Desahucios erakundeak manifestua irakurtzearekin batera, jarduera ugari antolatuko ditu Nafarroa plazan.

[ANDOAIN, 5.ORRIALDEA]

Rikardo Arregi kazetaritza saria

Larunbat honetan euskal kazetaritzaren hitzordu nagusietakoa, Basteron.

[AGENDA, 8.ORRIALDEA]

Wukrora joateko deialdia

Urnietako Udalak eta misio taldeak elkarrekin antolatzen duten deialdia, herriko gazteei zuzendutakoa.

[AGENDA, 8.ORRIALDEA]

Jaiak kaletxikin, uztailean

Uztaileko lehen asteburuan ospatuko dituzte jaiak Kaltetxikin. Jaiei hasiera emango diete Kandido eta bere txiki-xoen etorrerarekin.

[AGENDA, 8.ORRIALDEA]

San Juan sua bi herrietako plazatan



Andoainen sua hainbat metrotara ikus zitekeen.



Martiarena Denda Berriko lehendakariak sua piztu zuen, bostgarren urtez jarraian.

GIPUZKOARRAK DONOSTIARA DEITUTA ZEUDEN

Erabakitze eskubidearen aldeko jaialdia Anoeta estadioan

Gure Esku Dago ekimenak antolatuta, egun osoko jaia izan zen Euskal Herriko bost hiriburuetan. Donostian bildu ziren eskualdeko kideak. Goizetik festa nagusitu zen; Donostiako bost zubi

nagusiak oiha-kate jendetsuarekin batu zituzten. Gerora, Anoeta estadio inguruetan bildu ziren Donostiara hurbildutako gehienak, jaialdi nagusia ikusteko asmoz.

Andoaindarrek eta urnietarrek oiha katean tren geltoki ondoko pasealekuan parte hartu zuten. Ia denek ere Anoetako estadioko bidea hartu zuten.



Oiha-katea eguerdian egin zuten.



Jendetza hurbildu zen Anoeta estadiora, larunbat arratsaldean egin zuten ekitaldi nagusira.



Haurrak oiha-katearen aurretik.



Urnietarrak Donostian izan ziren, parte hartzen edota antolakuntzan lana egiten.



Eguzkipean, giro ederran aritu ziren ekitaldira hurbildutako andoaindarrak.

PENTAGRAMA ANTZEZLANA SAROBEN, URNIETAKO UDAL ANTZERKI TAILERRAREN ESKUTIK

Aurreko igandean “**Pentagrama-Enea**” ipuin-antzerki didaktikoa eskaini zuen antzerki tailerreko taldeak, 120 ikusleren aurrean. Antzezlanak oinarria herrian bertan du, Egape ikastolako irakasle eta musikari **Antton Jauregik** duela hogeitau urte musika lengoaiaren lehen pausoak emateko metodoa asmatu eta garatu baitzuen. Gaur egun Euskal Herriko ikastetxe askotan erabiltzen da metodo hori. Horren bitartez, ikasleek modu ludiko eta dibertigarri batean musika notenganako lehen hurbilpena

egiten dute. Pentagrama eta etxe baten artean dagoen paralelismoa du abiapuntua eta bertan bizi dira, besteak beste, Solferino alkate harroputza, Mikel Minali munduko futbolaririk hoberena eta Repe rokeroa.

Ez da Jauregiren metodoa hizpide hartuta lantzen den lehen antzezlan. Duela urte batzuk Aizpea Goenaga aktore eta idazleak metodo horixe berri antzezlan bilakatu zuen.

Ikasturteari amaiera emateko antzezlan aproposa izan zen, ikusleen artean ikusmina

sortu zuena. Aktoreak hauek izan ziren: Angela Sanchez, Conchi Gonzalez, Esther Modia, Gentzane Belaustegi-goitia, Isidro Salinas, Juankar Erasun, Julio Nogales, Koro Berasategi, Lupe Herrero, Pili Brandariz eta Xabier Odriozola. Yanire Juanikorena aktore languntzaile lanetan aritu zen eta zuzendari lanetan, nola ez, Mikel Agirregomezkorta.

Ekoizpen lanetan aipatzekoa da Pablo Lusarreta, Angela Sanchez, Enkarni Cuesta, Esti-txu Villanueva eta Sarobeko lan taldearen ekarpena.



DANTZA, PERKUSIO, MUSIKA ETA ANTZERKI IKUSKIZUNA

Akelarrea, ikusgarria

Estrainekoz, San Juan suaren inguruko ospakizuna aberasteko akelarrea irudikatzen saiatu egin zen, emaitza ikusgarriaren. Saio dotorea eskaini zuten, jaiak berezkoa duen ikusmina

areagotuz. Txanbolin, antzerki tailerra, gazte funky taldea, Buruntzantzan eta hainbat herritarrekin batera udaren etorrerako festa ahaztezin bilakatu zuten.

Gaua iristeko minutu asko falta ziren arren, plaza-ko harmailak herritarrez betetzen hasi ziren. Dantzari gazteek eta perkusioko kideek kalejirako azken saioa bertan egin zuten. Ondoren, haiek eta beste zenbait eragilek akelarrea antzeztu zuten. Muntaiak bikaina izan zen, ikusleek txalo zaparradarekin hartu zutena. Akelarrearen ospakizuna Urnietan egonkortzeko jaio da. Zorionak!



Mari eta Akerra.



Txanbolin taldeko kideen tokitik, plazaren ikuspegia ikusgarria zen.



Buruntzantzan perkusio taldeko kideak.



Aktore eta dantzari lanetan aritu ziren herrikideak, tartean antzerki tailerreko kideak.



Gazte funky taldeko kideak Estitxu Villanuevaren esanetara aritu ziren.



San Juan suaren atarikoan adin ezberdinetako dantzariak parte hartu zuten.

EKAINAK 27, LARUNBATA

Andoaingo Stop Desahucios ekimenaren protesta festa

Europa mailako erabakiek eta estatuan iraganean egindako arinkeriek ondorio latzak izan ditu gizartean. Gutxien eta gehien dutenen arteko aldea nabarmen handitzen ari da.. Azken urteotako arazorik

handiena etxegabetzeena izan da. Andoainen plataforma sortu zen eta alor horretan lan nekaezina egiten ari dira. Larunbat honetan ospakizuna egingo dute Nafarroa plazan, protesta festa hain zuzen.

Andoaingo Stop Desahucios taldeak festa aldarrikatzailea antolatu du larunbaterako. Bankuen kudeaketa salatzea da helburua eta, ekainaren 27an, arratsaldeko 17:00etatik 23:00etara ekin-tza ugari egingo dituzte Nafarroa plazan. Hasteko, Gora Kaletxiki txarangak girotuko du herria. Kalejira egingo dute Caja Labo-raletik Nafarroa Plazaraino, Gokoplazatik igaroz.

Plazan elkartutakoan, Julio Biurrun bakarlariak kontzertua eskainiko du. Eta ondoren, Bharat Martinek "Escuela de la Risa Inteligente" antzezlan eskainiko du.

Jarraian, Usurbilego Susanaren eskutik Zumba dantza erakustaldia izango da. Amaitzeko, Dj Nemux-ek musikarekin plaza girotuko du.

MANIFESTUA

Arratsalde osoan zehar, pintxopotea eskainiko dute. Txorizoa 1,50 euroen truke esku-ratu ahal izango da.

Gainera, ekitaldien artean herritarrek egoeraren berri izan dezaten manifestua banatuko dute. Egun berean Tolo-saldeko osasun publikoaren aldeko plataformak mahai infor-matiboa jarriko du.

Laguntzaileei eskerrak emateaz gain, Stop Desahucios taldeak andoaindarrei festara joateko deia luzatu die.



Apirilaren 18an manifestazioa egin zuten; ekainaren 27rako protesta festa iragarri dute.

"LA ESTAFIA CONTINUA" BIDEO KANALA SORTU DUTE

Komunikazioan lan ildo interesgarria zabaldu du Andoaingo Stop Desahucios ekimenak. "La estafa continua" izeneko kanala sortu dute eta bertan gaiari loturiko hiru bideo eskigiko dituzte. Lehen bideoan babestutako etxeen egoera aztertzen da, alokairuzkoa edota jabetzakoa den kasuetan. Bideo horretan politika aldaketa baten premia aldarrikatzen da, dagoen eskaintza ez duelako asebetetzen. Bigarren bideoan EAE mailako etxebizitzaren lege berria hizpide da, eta ekimenak egin dituen ekarpenak zehazten dituzte. Hirugarren bideoan, Etxebide eta Alokabide erakundeetako zerrendetan milaka eskatzaileen desagertzea salatzen dute.



Laguntzaileei eskerrak emateaz gain, Stop Desahucios taldeak andoaindarrei festara joateko deia luzatu die



"Iruzurra jarraitzen du" Ekainak 27, larunbata Nafarroa plaza

Egitaraua:

- 17:00-18:30 Gora Kaletxiki xarngaren kalejira.
- 18:00-22:00 Pintxo potea. Bertan egindako txorizoa.
- 19:00 Kontzertua: Julio Biurrun bakarlaria.
- 19:30 Antzerkia: "Escuela de la Risa Inteligente"
- 20:15 Zumba dantza erakustaldia.
- 21:00 Kontzertua: Julio Biurrun bakarlaria.
- 21:45 Musika: DJ Nemux.

Gerra hura zergatik?

Lekukotzak bildumako 9 eta 10 zenbakiak lehenengo karlistaldiari buruzkoak

Bibliografia historiko zabal baten azterketaren ondorio, Jon Unanuek idatzia.



Dagoeneko salgai, Andoainen eta Urdietan ohiko saltokietan 5 euroko prezioan





2015, ekaina



Uda giroko Sanjuanak Andoainen



Haurren gogoko ekitaldi ugari



Apar festan jendetza bildu zen. Aparra desagertarazten lanak hartu zituzten, festa amaituta.



Bizikleta festara urtero herriko haur ugari hurbiltzen dira.



Txalapartari gazteek ikasteko aukera izan zuten jaietan.



Zezen txikiarekin eta buruhandiekin jolasteko aukera paregabea izan zen Goikoplazan.



Ballet erakustaldi aparta eskaini zuten Azelain taldekoek.



Soinuak musika eskolaren jaialdia, jaien hasieran, Susana Cencillok zuzenduta.



Udal musika eskolako Mugaz taldea. Mirari Irurzun zuzendari lanetan aritu zen.



Andoaingo musika eskolako Banda, Mikel Emezabal zuzendariaren aginduetara.

Aurtengo jaien hasiera Aiertzaren eskutik

SAN JUAN JAIEN HASIERAN BURUNTZA AUZOKO EKINTZAILEA OMENDU ZUTEN. ANDOAINDAR PRESTUARI ESKER ONA ADIERAZI ZIOTEN UDAL ERAGILEEK ETA HAINBAT HERRITARREK. AIERTZAK HUNKITUTA HITZ EGIN ZUEN JAIEN HASIERAKO PREGOIAN.



Mosaikoa egin zuten Goikoplazan, omenaldi ekitaldiaren hasieran.

“Urduri nagoela aitortu behar dut, ez bereziki mikrofonoaren aurrean nagoelako, baizik eta lehenbiziko aldiz Ainhoa Aiertza bezala hitz egin behar dudalako”. Lotsatuta zegoela esanez jarraitu zuen pregoiarekin, haren ustez merezimendu handiko jende gehiago dagoelako herrian, “pozik, ohore handiz, ardura eta erantzukizun handia delako herritarren ordezkari gisa aritzea. Hunkituta eta eskertuta nago, herriko eragileek aukeratu nautelako. Azken egunotan jaso ditudan mezu eta dei guztiekin oso babestuta sentitu naiz”.

Ekitaldiak aurkeztu edota antolaketa lanean aritzeak gauza on asko eman dizkiola aitortu zuen udaletxeko balkoi-

tik, “lagun onak egin ditut eta herritar asko ezagutu”.

Herritarrengan jarri zuen arreta ondoren, “aurten niri egokitu zait pregoia irakurtzea, baina Andoain herritar askok egiten dute: haur, gazte zein heldu; gizonezko zein emakumezkoak,... bakoitzak bere esparruan: Hezkuntzan, osasungintzan, kirolean, merkataritzan, kulturgintzan, politikagintzan, etxean, kalea, lanean, lagunartean... denak gara garrantzitsuak. Andoain aktiboa, euskaldunagoa eta biziagoa izan dadin lanean jarraitu behar dugu”.

400. urteurrena gogoan, eskaera luzatu zien herrikideei: “Andoaindar izateaz harro sentitu gaitezela eskatu nahi dizuet”.



la Udal ordezkari gehienak hurbildu ziren jaien hasierako ekitaldira.

Gertukoei eskerrak emateko aukera baliatu zuen, pregoiarekin amaitu baino lehen: “Eskerrak bihotz bihotzez etxekoei, gurasoei, anai-arrebei, ilobei, eta koadrilari. Batzuetan familia eta lagunaren konpromisoen gainetik ekitaldia aurretik jarri eta etxekoak eta lagunak bigarren mailan utzi ditut. Eskerrak kultur eta kirol taldeei euren lantaldeko kide gisa tratatzeagatik. Eskerrak ere lankide eta ikasleei, behar ditudanean hor daudelako beti. Eskerrak auzokideei, auzoaren nortasunari eusteko egin duten lanagatik. Eskerrak auzoetako jai batzordeetako kideei ere. Eskerrik asko guztioi. Zuen baimenarekin, gora Buruntza! Gora Sanjuanak! Gora Andoain! Gora Andoaindarrak!”.



Aureskua eskaini zioten suziria bota eta gero.

Herri bazkaria auzoko jai batzordeen eskutik

TXULETA JATEA AUZOETAKO JAI BATZORDEETAKO KIDEEK BILKURA IZAN OHI DA. HAIEKIN ETA HERRITAR GEHIAGOREN PARTE HARTZEAREKIN OTORDU POLITA IZATEN DA.



Jai batzordeetako kideak bazkariari hasiera eman aurretik.



Giro polita sortu ohi da bazkarian jartzen duten kupelaren inguruan.

Uda giroko San Juan sua Goikoplazan

ANDOAINGO JAIETAN HERRIKIDE GEHIEN BATZEN DITUEN EKITALDIETAKOA DA SAN JUAN SUAREN INGURUAN EGITEN DENA. URTEZ URTE BERRITZEN DEN USADIO ZAHARRAK EZ DU IKUSGARRITASUNIK GALTZEN.



Axeri dantza parte hartze handiarekin

INOIZKO PARTE HARTZE HANDIENAREKIN BERRITU ZUTEN AXERI-DANTZAREN OHITURA SAN JUAN EGUNEAN. KALEJIRAN GOIKOPLAZARAINO IGO ETA GERO, IKUSLE ASKOREN AURREAN SAIO DOTOREA ESKAINI ZUTEN.



Hamaika hitzordu interesgarri jaietan zehar



Tango, sabel dantza eta dantza garaikideen erakustaldira jendetza hurbildu zen.



Xake joko azkarrean, Martiarena gainerako kideen aurka lehiatu zen.



Hirugarren eta laugarren posturako bikoteak. Urdinez, Iraola-Setien. Gorriz, Usandizaga-Etxeberria.



Eskudero-Olasagasti bikotea nagusitu da aurtengo txapelketan, Eskudero-Irazu bikotea garaituz.

Dantza garaikideen erakustaldia Goikoplazan



Haur danborrada eta agintarien kalejira, trenbidearen karroza ikusgarriarekin



Urtero berritzen diren usadio zaharrak



Salbe Gorena, Agustin Leitza omenez, bi abesbatzak kantatua eta Josean Pascualek zuzenduta.



Musika eskolako gazteen abesbatza Katrin Iturralde zuzendariaren esanetara aritu ziren, Elizan.



Hernandez (Ganemos), Izagirre (EAJ-PNV), Romero (PSE-EE) eta Zulueta (EH Bildu) Soka-dantzan.



Soka-dantzan parte hartu zuten agintari, musikari eta plazara atera zituzten hainbat gonbidatu.



Agustin Leitza elkarteko kideen danborrada, ekainaren 23an.



San Juan suaren inguruko ospakizunean Agustin Leitza elkarteak ez du hutsik egiten.



Emakumezkoek osaturiko batukada bigarren urtez jarraian Irten zen Goikoplazatik, ekainaren 22an.



Astelehenean jendetza hurbildu zen Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren emanaldira.

LIAM ETA DAKOTA GAZTEEN OPORRALDIAN ANDOAINGO JAIETARA HURBILDU DIRA

Zelanda Berritik Andoainera, San Juan jaiez gozatzera

Liam Ibai Wesney eta Dakota Petarina Ann urtarrilean ezkondu ziren; Nelson hirian (Zelanda Berria) bizi dira eta Andoainera etorri dira oporraldiaz gozatzera. Liam andoaindarra da jaiotzez, Wesney

Hurtado familiako senideen artean anaiarik zaharrena. Sanjuanak bete-betea bizi izan dituzte, eta hango eta hemengo ohituren arteko ezberdintasunak azaldu dizkiote Aiurriri.

Liam, Zelanda Berrian bizi den kide bakarra zara familian...

Liam Wesney: Bai. 2005ean, Andoain utzi eta hara bizitzera joan ginen; 2009an, itzuli egin ginen. Nolanahi ere, orduantxe ikasketak amaitu nituen, eta ikusita hemen lan kontua nahiko beltz jartzen hasita zegoela, han geratzea erabaki nuen. Berehala topatu nuen lanpostua, multinazional batean. Gutxira Dakota ezagutu nuen; oso kirol zaleak eta bizi garen tokiko tradizio zaleen zaleak gara biok ere, eta ondo moldatu izan gara hasieratik. Nelson hirian bizi gara; Euskal Herriaren antza handia dauka klima eta paisajearen aldetik.


Dakotari agindua nion Euskal Herrira etorri eta bertako ohiturak, bizimodua erakutsiko nizkiola. Egunotan biok ari gara ilusio hori betetzen. Dakotari izugarri gustatu zaizkio Euskal Herria eta euskaldunen izaera.

Euskalduna izanda, zer sumatzen duzu faltan Zelanda Berrian?

Liam: Euskal Herrian dagoen bizitza soziala! Han ez da koardilaren kulturarik ezagutzen. Alegia, hemen dagoen joera, kalera atera orduko lagunekin edo ezagunekin biltzeko, gauzak egiteko... Hori dela eta, hasieran, gogorra egin zitzaidan hango bizimodua.

Kalera irten, eta ez duzu inor ikusten. Lana eta bazkaria etxetik kanpo egiten da, eta nahiko berandu etxeratu. Jende guztia autoan mugitzen da alde batetik bestera. Paraje zabalak dira haiek, eta jendea etxeetan bakartuta bizi da. lagunarteko giroaz gozatu nahi izatera, etxe partikularren batean festa txikia antolatu beharrean zara. Ez dago santutegiari begirako jaiak antolatzeko ohiturarik, eta jende bilkurak, musika kontzertu edo errugbi partidatan sortzen dira.

Dakota, zuri zerk harritu zaitu gehien Euskal Herrian?



Liam Ibai Wesney eta Dakota Petarina Ann, munduaren bestaldean bizi dira.

Dakota Petarina Ann: Euskaldunen nortasuna ireki eta abegikorak, lehenengo eta behin. Etxeko atea ireki eta daukauen guztia eskaintzeko pronto zaudete beti. Jatorri maoriarreko jendearen antza hartzen duzue jokabide horretan. Zelanda Berriko zuriak, aurreneko kolonoen ondorengoak, normalean ez dira horren eskuzabalak.

Aurreneko egunetan barregarria egin zait zein erraz ateratzen zareten kalera kafea hartzeko, zenbatetan egiten dituzuen hitzorduak. Iruditzen zait ohitura horrek jendartearen egoteko gogoarekin zerikusia daukala. Konturatzen hasita nago motibazio handia daukagula lagunekin gauzak elkarrekin egiteko, eta aldi berean gizarteari onurak ekarriko dizkioten jaiak edo ekimenak antolatzeko. Horrek denak adierazten dit erroak bertara itsatsita daukazuela, herria bizi-rik mantentzeko nahia daukagula.

Bada beste detaile bat onerako harritu nauena. Izugarri poztu nau gaztetxoak kalean jolasean ikustea! Zelanda Be-

“Han ez dago santutegiari begirako jaiak antolatzeko ohiturarik, eta jende bilkurak, musika kontzertu edo errugbi partidatan sortzen dira”

rriko kaleak hutsik egoten dira, gaztetxoak denak etxean, play stationarekin eta antzeko jokoekin aritzen dira bakarka.

Harrera moduko zerbait egin berri dizute ingeleseko Andoaingo ikasleek...

Liam: Halaxe da. Nire gurasoen akademiako ikasleak ikasurte amaierako ekitaldia ospatzen ari zirela Basteron, ezustean, hor non aureskua dantzatu ziguten! Dakotarentzat oso hunkigarria izan zen; oso identifikatua sentitu zen keinuarekin, izan ere maoriarrek ere beren erritualak baitituzte, eta horien artean kanpotik datarren pertsona estimatu horridago ohorezko dantza bat eskaintzen zaie.

Esan behar da, oporretan, akademiako zenbait ikasle Zelanda Berria eramaten dituela

Roger gure aitak; Dakota eta biok ere han ibiltzen gara gidari lanetan, eta horrexegatik eskerak eman nahi izan zizkiguten. Dakota eta bere anaia erdi maoriarrak dira –ama maoriarra dute, aita irlandarra–, eta beren kultura eta ohiturak erakusten dizkiete. Dakotak, maoriarrek euren artean antolatzen dituzten txapelketetan parte hartzen du, abestuz eta dantzatuz. Egundoko ahotsa dauka!

Maoriarren kultura oso gertutik biziko bazenu bezala ari zara hizketan, Liam...

Liam: Umetan, aitak kultur ekitaldi tradizional batera eraman gintuen eta txoratuta geratu nintzen harrezkero; esaterako, Haka (maoriarren gerra dantza) ezin ikusgarriagoa iruditzen zait. Geroztik, beraiek egin ohi dituzten taldekako txapelketen jarraitzaile egin nintzen; telebistaz zein zuzeanean, emanaldi gutxi galdu izan ditut. Talde horietako bateko kide ere egin nintzen, antzerkia egiten zuena. Hantxe nenbilela ezagutu nuen Dakota. Tradizio horren berri jakite aldera, edonor sar daiteke youtuben eta idatzi, esaterako, Kapa Haka, Te Matatini, Poi (Maori) edo eta Haka hitzak.

Zer moduz moldatu izan dira historikoki Zelanda Berrian, bertako maoriarrak eta Europatik joandako kolonoak?

Liam: Australian baino askoz hobeto. Historiaz ez dakit asko, baina esango nuke nahiko txukun eraman izan dela bi kulturen arteko bizikidetzat. Horren adierazgarri da, gobernu eta parlamentu mailan, zuriak eta maoriarrak elkarrekin ikusi daitezkeela gaur egun.

Ingelesak han azaldu zirenean XIX. mendean, bertakoei bake hitzarmena proposatu zieten, lur sailen truk. Tribu batzuk onartu egin zuten proposamena, ez horrela beste batzuek. Azken horien ondorengoetakoa da Dakota. Egia da

“Bi urtean behin Zelanda Berritik Andoainera itzultzea erabaki dugu Dakotak eta biok”

ingelesek zenbaitetan hitzarmena ez zutela bete, eta liskarrak sortu zirela. Oraindik, maoriarrek, kendu zizkieten lurren jabetza aldarrikatzen jarraitzen dute.

Are gehiago, Zelanda Berrian badaude zonaldeak non maoriarrak beren hizkuntzarekin, beren arauekin, beren ohiturekin bizitzen segitzen duten. Zuriak ezin dute kasik bertaratu, soilik kazetariei uzten diete sartzen.

Liam, zer moduz zabilta txikitik ikasitako euskararekin?

Liam: Dena ulertzen segitzen dut, baina pena ematen dit gero eta traketsago mintzatzen naizelako. Egun hauetan betiko koadrilarekin egon naizenean, amorrazioa eman dit ezin izan diedalako berrikerian jarraitu. Amak aldizkariak eta bidaltzen dizkit euskara zein gaztelania praktika dezadan, baina akaso ez naiz behar bezala saiatzen. Dakota ere jada hasi zait bi hizkuntzak ikasi nahi dituela esanez, eta erakusteko. Horrek ederki izorratzen diola dio, Euskal Herrira etorri eta ezin hitz egin bertakoekin euren hizkuntzan, alegia. Bi urtean behin Zelanda Berritik Andoainera itzultzea erabaki dugu Dakotak eta biok.


Aholkatuko al zeniguke Zelanda Berria bidaiatzea?

Liam: Bai, jakina. Galdetu bestela hemendik hara joan izan diren ingeleseko ikasle andoaindarrei. Maoriarren kultura edota paraje naturalak ezagutzeagatik bakarrik, merezi du benetan. Hori bai, nahiko garestia da eta bidaia bera ere oso luzea da; 25 ordu egin behar izan genituen hona etortzeko.



KIROL ALBISTEAK


Parte hartze handia bikotekako krosean




Txapeldun-ordeak: Iñaki Intxausti (Tolosa)-Maialen Muñoz (Ibarra): 19:52.



Irabazleak: Peio Alkorta (Andoain)-Pili Bodegas (Lasarte-Oria): 18:55.



36 bikotek parte hartu zuen kros mixtoan.



Bikoteka egiten den kros mistoak aurten marka ona ipini du, 36 izan baitziren parte hartzera animatu ziren bikote-

ak. Adiskidetasun giroan egiten da, eta bikote bitxiak ikusteko aukera dago. Epaimahaiak, esaterako, Maria Jose



Gallardo-Asier Garitano Andoaingo ama-semeak osaturiko bikotea edota Fernando-Nerea Fernandez Andoaingo aita-ala-

bak saritu zituen. Baita Zumeatarra elkartetik irten ziren bi gaztetxoak ere. Orain arteko parte hartze handiena izan da.




Sailkapena:

1. Peio Alkorta-Pili Bodegas 18:55.
2. Iñaki Intxausti-Maialen Muñoz 19:52.
3. Joxean Alberdi-Eva Pelaez 20:02.

Gipuzkoako Itzulian, garaipena etxekoen aurrean

Sasoi dago jubenil mailako taldea, eta sasoi dago Ander Amonarriz eskolako txirrindularia. Aurreko astean Eibarren hirugarren sailkatu zen, eta Gipuzkoako Itzulian sekulako garaipena lortu zuen Andoain. Non eta etxean, ezin hobeto! Pozarren zeuden bera eta bere taldekideak, taldeka ere lehen postuan sailkatuta podiumera igo zirelako. Helmugan bertan, azterketa azkarra egin zuen irabazleak: “Sentsazio onak izan ditut lasterketa osoan eta zor-



Ander Amonarriz.



Andoaingo podiumera talde osoa igo zen, taldekako onenak zirelako.

te piska batekin Urrietako Irurainen txirrindulari batzuk ihesaldian alde egin dugu eta helmugara bakarrik iristea lortu dut”.

Ekainaren 22an Tolosan amaitu zen Gipuzkoako Itzulia eta azken sailkapenean Andoaingo taldea podiumera igo zen, taldeka lehen postuan sailkatuta. Sailkapen orokorrean, Jokin Alberdi laugarren sailkatu zen. Peio Manterola eta Koldo Velasco ere lehen postuetan sailkatu ziren. Zorionak talde osoari!



KIROL ALBISTEAK

Haur eta gazte mailako finalak



Esku pilotako umeen eta nagusien finalak jokatu ostean, taldeko argazkia ateraz zuten Arraten.



Zesta eta palako finalak jokatu zituzten larunbat goizean.

Kaletxiki vs. San Esteban auzoen arteko desafioa

Ontza eta Batzokiaren arteko desafioen ordez, aurtur auzoen artekoa izango da. Zehazki Kaletxiki eta San Esteban auzokoen artean. Harria jasotzea, txingak, ingudea, lokotxak, zaku eta laia karrera...

Uztailak 5, igandea. 17:00.

3x3 Street basket txapelketa

Ekainaren 30ean amaituko da izena emateko epea. Tokiak: Ganbara, Lanbroa, Irunberri, Olajauna...

Uztailak 13-24. Gaztetxea.

Kaletxikiko krosa

Auzoko jailetako zazpigarren mendi krosa, goizeko 10:00etan hasita. 18 urtetik gorakoentzat, 6,4 kilometroko lasterketa da. Lehenik ibiltariak irtengo dira, eta ondoren lasterkariak.

Uztailak 5, igandea. 10:00.

Iturzaeta pala txapelketako finala

Palarekiko zaletasuna berpizten ari dela esan daiteke, Iturzaetaren omenezko txapelketaren finalera ikusle asko bertaratu baitziren. Finala ikusgarria izan zen, emozioz beterikoa. Haien ondoren profesionalak iritsi ziren, munduko finalaren errebantxa jokatu asmoz. Gaubeka-Imanol bikotea izan zen irabazlea, Fusto-Ibai bikotea gaindituz. Profesional mailakoan arteko desafioak ez zituen alde aurretik sortutako kirol mailako aurreikuspenik bete. Iturzaetaren omenez jokatzeko den txapelketaren finala, aldiz, oso bestelakoa izan zen.



Sanz eta Arruti txapeldunak txapela jantzita. Behean, Labiano eta Iradi.

**SANZ-ARRUTI
IRADI-LABIANO**

**40
33**

Finala, Arrate. Jaiei hasierako ospakizunen artean, Iturzaeta herriko palista ezagunaren izena daraman memoriala erabaki zen. Bertan izan zirentzat gozamena izan zen. Emozioa, lehia,... final gehienek bere baitan biltzen dituzten osagaiak izan zituen. Irabazleek gogotik lan egin behar izan zuten, txapeldun-orde izan zirenek ez zutelako hain erraz etsi.

Argazkian, finalistekin batera Euskadiko federazioko lehendakari Jauregi, Sanz, Iturzaeta, Arruti, Lete eta Herranz. Behean, Labiano eta Iradi.

Eskubalo prestaketa saioak udan

Leizaran eskubaloia uda honetan saio bereziak antolatuko ditu datorren denboraldian infantil (2002-2003) eta kadete (2000-2001) mailan arituko diren neska/mutikoentzat. Entrenamendu saioak ekainaren 29tik uztailaren 24ra burutuko dira Allurralden. Aste bakoitzean ordu eta erdiko hiru entrenamendu saio izango dira; astelehena, asteazkena eta ostirala arratsaldeko 17:00etatik 20:00ak bitarte. Entrenamendu saioak euskaraz gauzatuko dira.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.



Ekoizlea:



Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.com
Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.com
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Izarne Olano, Joxeba Lizeaga eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.com
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.com.
www.aiurri.com.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.com
Tel.: 943 300 732

Banatzailleak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietak).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

EKAINAREN 25ETIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

- **“Ahor a nunca”.**
Larunbata, 27: 19:30, 22:00.
Igandea, 28: 19:30.
Astlehena, 29: 19:30, 22:00.

Urnietak, Sarobe

- **“Pride”.**
Ekainak 26 eta 28.

Erakusketa

Andoain, Urigain

- Udal ikastaroak: pintura, egur taila, eskulanak.
Ekainaren 27ra arte.

Azokak

Andoain

- **Bigarren eskuko azoka.** Izena emateko epea zabalik, ekainaren 26ra arte.
Informazioa: 943 591 298.
Uztailak 4, larunbata.
- **Stock azoka.** Salkin elkarteak merkatariei dei egiten die uztailaren 18an egingo den azokan parte har dezaten.
Informazioa: 637 955 030.
itziarirurzun@hotmail.com

Euskara

Andoain

- Ikasteko aukera udan, AEK-ren eskutik.
Epea: Ekainak 25, osteguna.

Musika

Andoain

- Tailerra eta sorkuntza arratsaldeko 16:00etan hasita. Parte hartzaileei ordenagailua eta aurikularrak ematea aholkatzen diete. Dohainik da.
Gauean, kontzertua.
22:30 Alitrita eta Bonn 49 taldeak.
Andoaingo Gaztetxea
Ekainak 26, ostirala.

Aisialdia

Urnietak

- **Uda Gaztelekuan**
Ekainak 29 astelehena: Pala eta pilota txapelketa Kontzejupean.
Ekainak 30 asteartea: Funky tailerra Saroben. Uztailak 1 asteazkena: Gazteleku irekia.
Uztailak 2 osteguna: Zinemara irteera, Errenterriara.
Uztailak 3 ostirala: Hernaniko igerilekuetara irteera.
- **Udabentura, Gipuzkoako txokoak**
Irteerak egunero uztailaren 13tik 17ra eta 20tik 23ra: Informazioa: Gaztelekua.
San Juan 38, behea.
943 333 972.

Gaztegunea

Urnietak

- Udako ordutegia: Goizez: 10:30-13:00.
Idiazabal, 13 behea.
943 333 973.
Irailaren 15era bitarte.
- **Udako ordutegia, Udal liburutegian:**
Uztailean: Astelehenetan, 10:00-13:00
16:30-20:30.
Astetetik ostiralera, 10:00-14:00.
Abuztuan: Astelehenetik ostiralera, 10:00-14:00.
- Udako ordutegia, fonoteka-bideotekan: Uztailean: Astelehenetan, 10:00-13:00
16:30-20:30.
Astetetik ostiralera, 10:00-14:00.
Abuztuan itxita.
CD edo bideoak liburutegian eskatu behar dira, eta egun batetik bestera eman-gotuzte.

Odol-emailak

Andoain

- 18:30-20:30.
Osasun etxea.
Uztailak 7, asteartea.

Urnietak

- 18:30-20:30.
Anbulategi zaharra.
Uztailak 13, astelehena.

Sariketa

Andoain, Bastero

- Rikardo Arregi kazetaritza saria.
12:00. Ekitaldi aretoa.
Ekainak 27, larunbata.

Jaiak

Andoain

- Kaletxikiko jaiak.
Uztailak 3, ostirala:
19:00 Kandido eta txikitxo-en etorrera.
20:00 Eresargi abesbatza Berrozpeko kaperan.
21:00 Bokatafari herrikoia.
22:00 Monologoak.
22:30 Mus txapelketa azkarrak Buruntza tabernan.
23:30 DJ Nemux.
- Uztailak 4, larunbata:**
10:00 Eskupilota topaketa Goikoplazan.
10:00 Plater tiraketa Azpikolako harrobian.
12:00 Sagardo txapelketa.
12:00 Haur parkea.
17:30 Haur parkea.
18:00 Inaxio Perurena harri jasotzailearen erakustaldia.
19:00 Pintxo potea txakolinarekin eta kabarekin.
20:00 Ontza elkartean afa-ria.
22:15 Kaletxikiko danborrada. Entseguak ekainaren 30ean eta uztailaren 2an.
23:00 Berbena Camp.
01:00 Oilasko hotza txanpainarekin.
01:30 DJ Nemux.

ZORION AGURRAK


ZORIONAK



Danelek ekainaren 23an 7 urte bete zituen, zorionak! Mar- kel, aita eta amaren partez.

URNIETA

ZORIONAK



Aritz Irazu Romanek ekainaren 29an 2 urte bete zituen. Muxuak, etxe-koak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Ekainaren 28an **Elisabet Gallok** urteak beteko ditu. Zure lehen-gusu **Oihanak**, ekainaren 28an, eta **Ainarak** uztailaren 2an beteko dituzte.

ANDOAIN

ZORIONAK



Nahia Baran- **dian Gonza-** **lezek** etxeko harribitxiak ekainaren 23an, lehen urtea bete zuen. Milaka muxu.

ANDOAIN / LARRAUL

Rikardo Arregi kazetaritza sariak larunbat honetan

Larunbat honetan eguerdiko 12:00etan hasita, XXVII. Rikardo Arregi kazetaritza sari-ko azken erabakia emango dute ezagutzera. Sari nagusia eta kazetari berria saria es- kainiko dituzte, diruz horni- tutako sariak biak. Epaima-

haia Andoaingo Udaleko Euskarako zinegotzi Estiba- litz Mujikak eta Allande Bou- tin, Idurre Eskisabel, Goio Arana eta Marijo Deogracias kazetariak osatu dute. Sari baaketa ekitaldia Bastero kulturgunean izango da.

Urnietako argazki rallyko irabazleak

Soraluzeko Carlos de Cos izan da azken edizioako ira- bazlea. Sarituen zerrenda hauxe da:
Bilduma onena:
1. Carlos de Cos.
2. Isidro Rodriguez.
Argazki onena:
1. Laura mendizabal.
2. Beatriz Landa.

Urnietako bilduma onena:
1. Aitziber Peñagarikano.
2. Jose Mª Manso.
Haurren maila:
1. Leire Manso.
2. Adrian Blando.
3. Amaia Lorenzo.
Instagram lehiaketa:
1. @gudamendi
2. @txinpun

Wucrora joateko deialdia

Udalak eta Urnietako Misio- en batzordeak sinatu duten hitzarmenaren arabera, aur- ten ere herriko gazte batek Wucrora (Etiopia) joateko aukera izango du. Hautatua Afrika aldean hiru hilabetez egongo da kooperazio lanak burutzen. Bete beharreko baldintzak hauek dira:
1. Unibertsitateko titulua izatea, lanbide heziketa edo lanbide batean espe- rientzia (iturgina, igeltse- roa, elektrizitatea).
2. Komunikatzeko oinarri- ko ingeles maila izatea.

3. Urnietan bizi edo jaio iza- na.
4. Lanerako eta ikasteko go- goa.

Izena emateko interesa- tuek kurrikuluma gaztein- formazioa@urnietak.eus e- postara bidali behar dute, edo Idiazabal Kanean dagoen Gazte Informazio Bulegoan utzi.
Afrikako Wukron Etiopia Utopia fundazioak egiten duen lan handia etiopiao- pia.org webgunean kontsul- ta daiteke.